

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	AZAZKALEN OINARRIZKO ZAINKETA ESTETIKOAK	Iraupena	60
Kodea	MF0344_1		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Estetikako zerbitzu osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Higienea eta segurtasuna edergintza-zentroetan	Iraupena	30
	Ilearen depilazio mekanikoa eta dekolorazioa (zeharkakoa)		90
	Eguneko makillajea		60
	Estetikako zerbitzu osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		120

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0344_1 AZAZKALETAN OINARRIZKO ZAINKETA ESTETIKOAK APLIKATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Bezeroaren esku eta oinen ezaugarriari behatzea, eta, alterazioen bat badago, hura detektatzea, teknikarik egokienak aplikatzeko.
- E1.1 Teknikari arduradunari kontsultatu beharreko azazkaleko anomalien berri azaltzea.
 - E1.2 Eskuen eta azazkalen ezaugarri morfologikoak zerrendatzea, azken formarik egokiena hautatzeko.
 - E1.3 Zerbitzuak erantzun behar dien eskaerak eta beharrak detektatzeko galdera tipoak egitea.
 - E1.4 Fitxa teknikoa bezeroaren datuekin betetzea, gauzatzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko, teknikari arduradunaren argibideei jarraikiz.
- A2: Bezeroa, ekipoak eta baliabideak prestatzea segurtasun- eta higiene-teknika espezifikoak aplikatuz.
- E1.2.1 Manikurako laguntzaileak zer itxura izan behar duen deskribatzea: ilea, janzkera, osagarriak eta higiena.
 - E1.2.2 Manikurako eta pedikurako teknikak aplikatzeko bezeroak eta profesionalak izan behar duten jarrera higienikoa deskribatzea.
 - E1.2.3 Teknika estetikoetan aplikatzen diren higiene-, desinfekzio- eta garbiketa-metodo fisikoak eta kimikoak zerrendatzea.
 - E1.2.4 Tresnak, materialak eta produktuak prestatzea, behar diren higiene- eta desinfekzio-teknikak aplikatuz, eta zer konposizio duten eta zertarako diren aintzat hartuz.
 - E1.2.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, bezeroa beharrezko higiene- eta segurtasun-kondizioetan prestatzea manikurako eta pedikurako tekniketarako.
- A3: Azazkalen forma aldatzea, mozteko eta limatzeko teknikak segurtasun- eta higiene-kondizioetan aplikatuz eta bezeroaren eskariak eta ezaugarriak aintzat hartuz.
- E1.3.1 Azazkalak mozteko eta limatzeko teknikak aplikatzean arrisku pertsonalak prebenitzeko kontuan hartu beharrekoak deskribatzea.
 - E1.3.2 Eskuetako azazkalak forma egokiarekin mozteko urratsak azaltzea.
 - E1.3.3 Alterazioak prebenitzen dituen oinetako azazkalak mozteko modua deskribatzea.
 - E1.3.4 Lima-mota azazkalen ezaugarrien arabera hautatzea.
 - E1.3.5 Azazkalak luzeraren eta formaren arabera limatzeko faseak azaltzea.
 - E1.3.6 Azazkalen forma aldatzeko kasu praktiko batean:
 - Teknika aplikatzeko behar diren tresnak hautatzea eta prestatzea.
 - Jarrera higieniko egokia zein den aintzat hartuta kokatzea bezeroa.
 - Eskuetako eta oinetako azazkalak mozteko teknika segurtasun- eta higiene-kondizio egokietan aplikatzea.
 - Luzera eta forma bezeroaren eskarietara, esku eta oinen morfologiara eta azazkalen ezaugarrietara egokituz limatzea azazkalak.
- A4: Azazkalak eta kutikula txukuntzeko oinarriko manikura-teknikak aplikatzea, behar diren tresnak eta kosmetikoak hautatuz eta prozesua dagokion ordenan eginez.
- E1.4.1 Manikurako eta pedikurako prozesuen faseak azaltzea, eta haietako bakoitzean zer eragiketa tekniko egiten diren adieraztea.
 - E1.4.2 Kosmetikoak, tresnak eta materialak manikuran eta oinetako azazkalen zainketa estetikoetan aplikatzen diren teknikekin erlazionatzea.

EI4.3 Azazkalak eta kutikulak txukuntzeko teknikak aplikatzean arrisku pertsonalak prebenitzeko kontuan hartu beharrekoak deskribatzea.

EI4.4 Bezeroa eman behar zaion zerbitzuaren arabera prestatzea eta babestea.

EI4.5 Manikurako eta pedikurako kasu praktiko batean:

- Beharrezko produktuak eta tresnak hautatzea eta prestatzea.
- Makillajea kentzeko, limatzeko eta kutikulak egokitzeko teknikak azazkalen ezaugarriari eta bezeroak eskatutako zerbitzuari egokituta aplikatzea.
- Mantentzeko oinarrizko zainketei eta produktuei buruzko informazioa ematea bezeroari.
- Masaje-mugimenduak finkatutako ordenan egitea.

A5: Azazkalak leuntzeko eta makillatzeko teknikak aplikatzea, eta zerbitzuaren emaitzak ebaluatzea, beharrezkoa bada neurri egokiak proposatzeko.

EI5.1 Azazkalak leuntzeko eta makillatzeko teknikak aplikatzean arrisku pertsonalak prebenitzeko kontuan hartu beharrekoak deskribatzea.

EI5.2 Azazkalaren gorputza leundu eta makillatu aurretik hango produktu-hondarrak garbitzeko teknikak deskribatzea.

EI5.3 Azazkal-babesgarria edo -gogortzailea fabrikatzailearen argibideei jarraikiz aplikatzeko prozesua azaltzea.

EI5.4 Azazkalak leuntzeko teknikak aplikatzea, tresna eta produktu espezifikoak erabiliz —kosmetikoak, zapiak edo limak— eta azazkalen ezaugarriak errespetatuz.

EI5.5 Berniza hautatzeko irizpideak azaltzea, arroparen eta koloretearen kolorearekin erlazionatuz, harmonia egokia sortzeko.

EI5.6 Kosmetiko apaingarriak ematea azazkaletan, teknika espezifikoa hautatuz, hiru pintzelkada eta bi geruza emanez, emaitza uniforme lortzeko.

EI5.7 Azkar lehertzeko produktua fabrikatzailearen argibideei jarraikiz aplikatzeko prozesua azaltzea.

EI5.8 Kontserbatzeko zainketei eta produktuei buruzko informazioa ematea bezeroari.

EI5.9 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoak egitea.

EI5.10 Bezeroa ez gogobetetzea eragin dezaketen arrazoi teknikoak eta bezeroaren arretakoak aipatzea.

Edukiak

1. Azazkalak, eskuak eta oinak.

- Eskuen, oinen eta azazkalen morfologia.
- Egitura eta funtzioak.
- Azazkalen alteraziorik ohikoenak: Patologikoak. Ez-patologikoak. Beste profesional batek esku hartzea komeni den alterazioak.
- Azazkaletako eta azazkalen inguruko alterazioek manikurako eta pedikurako prozesuetan duten eragina.

2. Manikuran eta pedikuran erabiltzen diren tresnak eta kosmetikoak:

- Tresnen sailkapena eta erabilera.
 - Limak: motak, formak eta gramajeak.
 - Kutikuletarako eta azazkaletarako aliketak.
 - Guraizeak.
 - Laranjondo-ziria.
 - Azazkal-leungailuak.
 - Hatz-bereizgailuak.
 - Espatula.
 - Eskuentzako eta oinentzako ontziak.
 - Parafinazko aparatua.
 - Produktuak: kotoia, gazak, belakiak eta abar.
- Hautatzeko, manipulatzeko eta kontserbatzeko irizpideak.
- Tresna eta materialen garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa.
- Kosmetikoen sailkapena:
 - Azazkaletarako makillaje-kentzekoak.
 - Bigungarriak.
 - Keratolitikoak.
 - Gogorgarriak.
 - Crema hidratatzaileak.
 - Parafina.
 - Azazkal-bernizak.
- Kosmetikoak hautatzeko, manipulatzeko, emateko eta kontserbatzeko irizpideak.
- Produktu kosmetikoen garbiketa, kontserbazioa eta mantentze-lanak.

- 3 Manikurako eta pedikurako zerbitzua antolatzea eta bezeroa prestatzea segurtasun- eta higiene-kondizioetan**
- Lanerako ekipoa eta espazioa prestatzea.
 - Bezeroa kokatzea: jarrera higieniko gomendagarriak.
 - Manikurako eta pedikurako prozesuetan bezeroa babesteko neurriak:
 - bezeroa babesteko erabiltzen diren materialak eta baliabideak.
 - Manikurako eta pedikurako zerbitzuen arriskurik ohikoena prebenitzeko neurri eta oinarritzko zainketei buruzko informazioa.
- 4. Manikurako eta pedikurako zainketa eta teknika espezifikoak**
- Azazkaletako makillajea kentzeko teknika: azazkalaren gorputza eta inguruko tolestura.
 - Txukunketa eta forma:
 - Esku eta oinetako azazkalak mozteko teknika.
 - Azazkalak limatzeko eta leuntzeko teknika.
 - Kutikulak egokitzeko, kentzeko eta zaintzeko teknika.
 - Esku eta oinetan masajea emateko mugimenduak. Sekuentziarioa eta sortzen dituzten efektuak. Erabilerak eta kontraindikazioak.
 - Azazkalak makillatzeko teknika: ohikoa, ilargi-formakoa, fantasiakoa eta abar.
 - Gizonezkoen manikura:
 - Eskuetako azazkalak mozteko teknika.
 - Limatzeko teknika.
 - Kutikulak egokitzeko, kentzeko eta zaintzeko teknika.
 - Gauzatzeko protokolo espezifikoak.
 - Manikura- eta pedikura-prozesuetako segurtasuna eta higiena.
 - Manikurako eta pedikurako prozesuetan profesionala babesteko neurriak: Jantzera. Lanerako jarrera higieniko egokiena.
 - Manikurako eta pedikurako zerbitzuan gerta litezkeen aurreikusitako gabeko gorabeheretarako oinarritzko ekintzak eta botikina.
- 5. Manikurako eta pedikurako prozesuaren ebaluazioa eta kalitate-kontrola.**
- Kalitatearen kontzeptua manikura- eta pedikura-prozesuetan.
 - Manikura- eta pedikura-zerbitzuen kalitatea definitzen duten parametroak.
 - Kalitatea manikura- eta pedikura-zerbitzuen aplikazioan eta salmentan.
 - Bezeroak zerbitzuari dagokionez nahiz jasotako tratuari dagokionez zer-nolako gogobetetze-maila duen neurtzeko teknikak.
 - Manikura- eta pedikura-prozesuetan izandako desbideratzeak zuzentzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Estetikako zerbitzu osagarriak.